


Energia hori 600 milioi julio da guztira.



Energia hori 600 milioi **julio** da
guztira.



Energia hori 600 milioi joule da guztira.




Izen berezietatik edo deituretatik etorritako unitateak jatorrizko grafiarekin idatzi behar dira.

HORTAZ:

- joule
- hertz
- ohm
- coulomb
- farad
- ampere
- volt
- watt
- ...

ETA EZ:

- ✱ julio
- ✱ hertzio
- ✱ ohmio
- ✱ culombio/kulonbio
- ✱ faradio
- ✱ amperio/anpere
- ✱ voltio/boltio
- ✱ vatio/batio
- ✱ ...



Halaber, letra xehez:

- kelvin
- tesla
- newton
- pascal
- ...

Baina:

- Celsius gradua

ETA EZ:

- **K**elvin
- **T**esla
- **N**ewton
- **P**ascal
- ...



Eta letra mota arruntez:

- Balioa 175.000.000.000 **coulomb** da.
- Hamar **teslako** eremua aplikatuz, ez da gutxituko materialaren erresistentzia.

Eta ez letra etzanez:

- Balioa 175.000.000.000 **coulomb** da.
- Hamar **teslako** eremua aplikatuz, ez da gutxituko materialaren erresistentzia.

Ezta letra lodiz ere:

- Balioa 175.000.000.000 **coulomb** da.
- Hamar **teslako** eremua aplikatuz, ez da gutxituko materialaren erresistentzia.



Unitateak jokatzeko moduari dagokionez:

+ Ez zaie marratxoz eransten atzizkia:

● Nazioarteko sisteman, **coulombetan** neurtzen da karga elektrikoa.

■ Nazioarteko sisteman, **coulomb-etan** neurtzen da karga elektrikoa.

+ Mugatzailea hartzen dute, behar denean:

● Lana eta energia oso lotuta daude elkarrekin fisikan; izatez, bien unitatea **joulea** da Nazioarteko Unitate Sisteman.

■ ...; izatez, bien unitatea **joule** da unitate Nazioarteko Unitate Sisteman.

